

LaburMETRALLAk

CORTOS

“Argentina libre de fracking” (3:54)

Argentinak frackingaren inguruan bizi duen egoerak ezinbestekotzat du gizarte-mobilizazioa.

“Petrolioaren lioa” (Jon Martin)

Bertsoak, animazioak eta abar, petrolioaren bukaera azaltzeko. Made in EH

“¡DAME MÁS GAS!” (Xarxa de Sobirania Energètica)

Hip hop bideoak, energia-burujabetzaren aldeko borrokari buruz (www.xse.cat)

“LEGO- Everything is NOT awesome” (Greenpeace)

Shell konpainiak Artikoa ustiatzeko dituen interesak eta horren ondorioak azaltzen ditu animazio honek. Legok kontratu bat sinatu du Shellekin, eta horixe salatzen du, hain zuzen ere, bideoanimazio honek.

“Chiacté Vive” (Curruscu – 2:46) Mugarik Gabe

Enpresa transnazional handiek lurra lapurtu egiten dituzte, herri indigenak euren lurraldeetatik kanporatzen dituzte, eta naturari konpondu ezineko kalteak eragiten dizkiote. Guatemalako Chiacté herriak ondo baino hobeto daki hori.

Oihana nonahi erakusten duen animazio honen bitartez, mehatxupearan dagoen Chiacté komunitate indigenaren historia ezagutuko dugu. Tamalez, Latinoamerikan behin eta berriz gertatzen den historia da hori.

“Abaixo da barragem” (Abajo del embalse)

Ibai bat urtegitatu eta gero, urak gainez egiten duen une tragikoa erakusten duen film laburra.

“Decrecimiento en un minuto” (Curruscu – 2:22) (Desazkundera eta Bizitze Ona jardunaldiak – Ekologistak Martxan barne)

Desazkundera minutu batean

Mugarik Gabe elkarteak egin duen bideoa, desazkunderaren kontzeptua minutu batean ulertzera emateko.